



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: 2025FPRO0002

DEKRETUA

AGURTZANE SOLABERRIETA MESA, Usurbilgo Udaleko alkateak, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK

↓
2025eko martxoaren 26ean 2025/397 dekretuan Udal aparejadorea/zerbitzu eta mantenu saileko burua lanpostuko lehiaketa berezia deitzea eta oinarriak onartzea erabaki zen.

2025eko apirilaren 7an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2025eko apirilaren 28an oinarrietan eskaerak aurkezteko epearen inguruko akats zuzenketa argitaratu zen.

2025eko maiatzaren 5ean Toki Administrazioekiko Harremanetarako Zuzendaritzatik akats batzuen inguruko berri emate eskaera jaso zen.

Udal idazkariak honen inguruko txosten eman du, eta oinarrietako zuzenketak argitaratu arte **lehiaketa-prozesuan parte hartzeko eskaera epea etetea** gomendatu du.

Etete hori beharrezkoa da izangaien eskubideak ez urratzeko eta lehiaketa-prozesuaren baliozkotasuna eta legezkotasuna ziurtatzeko.

Gainera, oinarriak aldatzea dagokio, 39/2015eko legearen 109.2 artikuluan ezarritako eran: *Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.*

Hau guztia kontutan harturik,

ERABAKI DUT



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: **2025FPRO0002**

LEHENENGOA:2025eko apirilaren 7an argitaratutako Udal Aparejadorea/Zerbitzu eta mantenu saileko burua lanpostua betetzeko **lehiaketa-prozesuan parte hartzeko eskaera epea etetea oinarrietako zuzenketak argitaratu arte.**

BIGARRENA: **Lehiaketa-prozesuko oinarriak zuzentzea eta GAO-n argitaratzea onartzea**, 39/2015eko legearen 109.2 artikuluan ezarritako eran: *Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.*

HIRUGARRENA: Hautagaiei informazio egokia eta eskubideen babes barmatzea, **merezimenduak alegatzeko epealdia 10 lanegun luzatuz oinarrietako zuzenketen laburpena BOE-n argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.**

LAUGARRENA: Erabaki hau iragarki taulan argitaratzea, eta interesdunei jakinaraztea.

Erabakiaren urkako errekurtsok:

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtsok edo administrazioarekiko auzi errekurtsok aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtsok aurkez dezake, urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

- Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.
- Non: Alkatetzara jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsok aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25 eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik.

- Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsokaren erantzunaren aurka jotzeko:

- Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsokaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsokaren erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsok, berariazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, agindu eta izenpetzen duena alkateak. Usurbilen, dekretuaren datan.

ALKATEA
Agurtzane Solaberrieta Mesa

IDAZKARIA
Xabin Juaristi Arrieta



EKS | CSV: **ESKU3d8ae13e-c279-4d13-940e-f5ade874433d**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025FPRO0002-DekretuaOrokorra/DekretuaOrokorra (USURBILGO UDALA)